



# *tolOsatzen* 2017ko ekintzen garapena



## **Ildo estrategikoak:**

**1. Tolosa, pertsona ardatz duen herria, ildo estrategikoa.**

**2. Tolosa, herri hezitzailea eta kultur anitza ildo estrategikoa**

**3. Ingurunearen babesa eta udalerrriaren nortasuna mantenduko duen herri garapen iraunkor eredugarria ildo estrategia**

**4. Tolosako garapen ekonomikoa sustatu hiri ekonomia, industria eta lehen sektorea oinarritzat hartuz, Ildo estrategikoa**

## Gizarte zerbitzuak

1 Tolosa, pertsona ardatz duen herria

1.1 Tolosako gizarte zerbitzuak guztionak, guztiontzat programa

### 1.1.1 GIZARTE ZERBITZUAK EZAGUTARAZI

#### Jarduera

- Gida egituratzeko oinarri izango diren baliabide eta programak zerrendatzen eta ordenatzen hasi gara.

%25

### 1.1.2 GIZARTE ZERBITZUKO ARRETA-ZERBITZUA HOBETU

#### Jarduera

- Irisgarritasuna bermatu. Arreta egiten den bulegoetarako sarrera egokitu eta arreta protokoloa berrikusi

%50

### 1.1.4 GIZARTE OSASUNTSUAGO ETA INKLUSIBOAGO BAT HELBURU, PREMIAZKO ALORRETAN ERAKUNDE ETA ERAGILEEKIN ELKARLANA SUSTATZEKO LAN-MAHAI IRAUNKORRAK ERATU

#### Jarduera

- Gizarte-zerbitzu, osasun-zerbitzu eta eskolen arteko koordinazio-mahaia indartzen jarraitu da. Tolosako immigrazio-mahaiarekiko elkarlana estutzen hasi gara.

%75

### 1.1.5 GIZARTE ZERBITZUEN ALORREAN JARDUTEN DUTEN ELKARTEEN ELKARLANA SUSTATU

#### Jarduera

- Elkarteen arteko topaketa antolatu. Boluntariotzaren nazioarteko eguna bistaratu: Abenduaren 1ean, boluntarioen arteko topaketa



%50

## Gazteria

1 Tolosa, pertsona ardatz duen herria, ildo estrategikoa.

1.2 Tolosako haur, nerabe eta gazteen sustapen-programa.

### 1.2.1 HAUR, NERABE ETA GAZTEEN IKUSGARRITASUNA, PARTE HARTZEA ETA INPLIKAZIOA SUSTATU TOLOSAKO GIZARTE BIZITZAN

#### Jarduera

- Elkarreetako gazteez osatutako talde motorra identifikatu eta gaiaren inguruko lehen bilerak egin dira.
- Boluntariotzaren nazioarteko eguna bistarazi herrian. Abenduaren 1ean izaera soziala duten elkarte eta boluntarioen arteko topaketa-proiektu berriak abian jartzeko ekimenak bultzatzea egongo da.

1.000 €

%50

### 1.2.2 HAUR, NERABE ETA GAZTEEN ZERBITZUAK EZAGUTARAZI, INDARTU ETA ERAGILE ETA ERAKUNDEEKIN ELKARLANEAN JARDUN

#### Jarduera

- Hezkuntza, prebentzio eta aisia alorretako elkarlan-hitzarmenen sistematizazioa. Ikastetxeekin dugun mahaia eta herriko eragileena Sistematizatzea
- Haur, nerabe eta gazteen zerbitzuen birdefinizioa modu parte-hartzailean burutu eta bistaratu. Birdefinizio fasea

6.000 €

%35

### 1.2.3 HAUR, NERABE ETA GAZTEEN ARTEKO ELKARLANERAKO, SORMEN EKINTZETARAKO ETA BELAUNALDI ARTEKO EKINTZAILETZARAKO GUNEAK AHALBIDETU

#### Jarduera

- Haurren hiria egitasmoaren barruan belaunaldien arteko informazioaren transmisioa landu.



23.879,84 €



%50

### 1.2.4 GAZTEEN EMANTZIPAZIOA SUSTATZEKO POLITIKAK DISEINATU ETA GAUZATU

#### Jarduera

- Gazteen emantzipaziorako bidean lagun izan. Arlo profesionalekin loturiko ekintza ezberdinak burutuz ideia lehiaketa, berdintasun irizpideak txertatuz.



3.000 €



%25

## Berdintasuna

1 Tolosa, pertsona ardatz duen herria, ildo estrategikoa.

1.3 Tolosan berdintasuna egunero eta edonon programa.

### 1.3.1 UDALAREN POLITIKETAN, JARDUERETAN, ANTOLAKETAN ETA ERABAKIETAN GENERO-ZEHARKAKOTASUNA TXERTATU

#### Jarduera

- Transbertsalak diren departamentuekin bi bilerak egin dira, era transbertsalean proiektuak aurrera eramateko.
- Teknikoentzat 15 orduko ikastaroa eta politikoentzat 3 ordukoa
- 2017ko GFako diru-laguntzarekin Genero zeharkakotasuna: sailen jarduketan ebaluazioa, eguneratzea eta dinamizazioaren proiektua martxan jarria da
- Kontrataziorako plegu administratiboak eta teknikoak aztertu eta berdintasun klausulak txertatu. Hainbat dokumentuetan hizkuntza ez sexista erabili.
- Diru-laguntzak eta hainbat kontrataziorako pleguetan berdintasun klausulak txertatu.

18.529,93 €

%96

### 1.3.2 JATORRI EZBERDINETAKO HERRIKO EMAKUMEEN JABETZA, AUTONOMIA ETA PARTE-HARTZEA SUSTATUKO DITUEN JARDUERAK MARTXAN JARTZEA. BAITA MASKULINITATE ROL ETA ESTEREOTIPOAK BERRIKUSTEA ERE

#### Jarduera

- Martxan jarri da Tolosako emakume gazteak udalerraren eta beren bizitzen eraikuntzan protagonista izateko baldintzak sortzeko prozesuaren proiektua.
- Jabetze Eskolan egindako tailer eta ikastaroetan, emakumeen autoestimua pertsonala eta kolektiboa jorratu da, beren autonomia eta emakumeen sareak sendotzeko asmoz
- Hezkidetza-proiektu integrala sistematizatu eta ebaluatu, egungo egoeraren diagnostiko berria egin eta etorkizunerako ildo estrategikoak identifikatzeko
- Berdintasuna, gizonen ardura bada ikastaroa antolatuko da.
- Jaien behatokia lehen aldiz martxan jarri da.

59.762,84 €

%80

### 1.3.3 PARTAIDETZA-PROZESUAK ERRAZTEA ETA ESTRUKTURAK ETA MEKANISMOAK SORTZEA, TOLOSAN EMAKUMEENTZAKO ETXE/GUNE BAT ANTOLATZEAREN EGOKITASUNA EZTABAIDATZEKO ETA GOGOETA EGITEKO

#### Jarduera

- Emakumeen Etxeaz hausnartzea Berdintasun Batzordean, herriko emakume eragileen partaidetzarekin eta beste herri batzuetako esperientziak ezagutu eta aztertu dira.
- Lan-mahaia eratu da. Bost bilera egin dira.

140 €

%50



#### 1.3.4 SENTSIBILIZAZIO, DETEKZIO, PREBENTZIO, INTERBENTZIO ETA ARRETA POLITIKAK SUSTATU, INDARKERIA ETA ERASO SEXISTARI, HOMOFOBIARI, LESBOFOBIARI ETA TRANSFOBIARI AURRE EGITEKO

##### Jarduera

- Terminologia berriaren proposamena landu da, Azaroaren 25eko kanpaina diseinatu.
- Udal departamentuekin (Jaiak, Udaltzaingoa, Obrak eta Zerbitzuak, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasuna), koordinazio-bilerak egin dira eta Sexu-erasoen aurrean, Udal departamentuen betebherraren Protokoloa sortu da.
- Beldur Barik eta Hi haiz Hi! proiektuaren bidez, indarkeria eta eraso sexisten gaiak landu, baita hezkidetzak proiektuak ere

10.267 €

%70

#### 1.3.5 BERDINTASUNA DEMOKRAZIAREN BALIO GISA AZPIMARRATU ETA EMAKUMEEN LANAREN GARRANTZI EKONOMIKOA ETA SOZIALA BALIOAN JARRI

##### Jarduera

- Zaintzaile lana egiten duten emakumeentzako Gizarte-erakundeetan ziurtagiri profesionala eskuratzeko, modulu bat martxan jarri nahi da
- Guretzako gunea antolatu da, 2017ko udaberriko eta udazkeneko Jabekuntza Eskolaren baitan

1.030 €

%50

## Herritarrekiko harremanak, partaidetza eta informazioaren gizartea

1 Tolosa, pertsona ardatz duen herria, ildo estrategikoa.

1 Tolosa, pertsona ardatz duen herria, ildo estrategikoa.

1.4 Tolosa, herrikidetasunetik eta erantzunkidetasunetik gobernantza eredu berri baterantz, programa.

### 1.4.2 INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK INDARTUZ GARDENTASUN POLITIKAK SENDOTU

#### Jarduera

- WEB ORRI BERRIA web orri desberdinak batzea (Agenda, Administrazioa, Turismoa). *Responsive*, hau da, moldagarri egitea
- Zerbitzu telematikoak espediente kudeaketa eta tramiteen katalogoarekin erlazionatuta
- Espediente kudeaketa. Aplikazioa departamenduetara hedatzen joan eta martxan daudenak sendotu
- Tramiteen katalogoa osatu
- Zerbitzu karta osatu
- Gardentasun ataria osatu eta eguneratu



%58

## Euskara eta Hezkuntza

1 Tolosa, pertsona ardatz duen herria, ildo estrategikoa.

1.5 Tolosa, arnas-gunerantz programa

### 1.5.4 ETORKINEN ARTEAN EUSKARAREN ERABILERA INDARTU

#### Jarduera

- Hainbat ikastaro egin dira, Euskara Plus proiektuaren barruan, Banaiz, bagara elkartearen eskutik. Oinarrizko hiztegia, esaldiak... Hiru arlo lantzen dira ostalaritza, zaintza eta industria.
- Aitzol Udal Euskaltegiak eskaintzen ditu etorkinentzako ikastaro bereziak Aisa programaren barruan

%50

### 1.5.5 UDAL ADMINISTRAZIOAN EUSKARAREN ERABILERA INDARTU

#### Jarduera

- KONTRATUZAIN programa martxan jarri: Udalarekin kontratua sinatuta daukate hainbat enpresak, zerbitzuak eskaintzeko.
- Udal<>ekin programan parte hartu. Euskararen sustapen edo normalizazio-lanetan ari diren udal teknikariei laguntza zehatza ematea, langintza horren alderdi
- Hainbat enpresarekin harremanetan jarri fakturak-eta euskaraz bideratzeko Udalarekin. Laguntza ere eskaini (ereduak, itzulpenak...).

%50



### 1.5.8 TOLOSARREN EUSKARA EZAGUTZA ETA KALE ERABILERA HANDITZEA

#### Jarduera

- Arnastu Euskara *lipdub* erraldoia.



## Kirolak

1 Tolosa, pertsona ardatz duen herria, ildo estrategikoa.

1.6 Tolosa, osasunez bizitzekoa, programa.

### 1.6.1 BIZI OHITURA OSASUNGARRIA SUSTATU AKTIBITATE FISIKOAREN BIDEZ

#### Jarduera

- Mugi-Tolosaren sendotzen. Boluntarioen pate-hartzea handituz, eragile ezberdinen lankidetzaz sustatu eta gero
- Gipuzkoako Kirol egokituaren federakuntzarekin lankidetzaz-ildoak jorratu, eskualdean, desgaitasun fisiko, psikiko edo sensoriala duten pertsonentzako instalazioak eskura jarri eta atentzio kualifikatua eskainiz.

8.000 €

%63

### 1.6.2 PARTAIDETZAZKO KIROL-JARDUEREN BIDEZ, AISIA HELBURU DUEN KIROL EREDUA BULTZATU

#### Jarduera

- Hondartzako boleibolaren bultzada (feria-lekuan kokatua), eredu ez lehiakorra soilik, kirol minorizatua, emakumeen presentzia. Txapelketari babesia
- Zumardia elkarteak kudeatzen duen gunean (Pototxo), petrilaren itxitura eta, argi hornidurarako, plaka fotovoltaikoak

3.200 €

%63

### 1.6.3 TOLOSAKO KIROL ELKARTEEN EGITURA SENDOTU ETA MONITOREAK EREDU BERRIETAN ETA BALOREETAN TREBATU

#### Jarduera

- Hezkidetza proiektua eskola kirolera zabaldu, koordinatzaileekin partekatuz egungo diagnostia eta lan ildo berriak beraiekin adostuz.

%100

### 1.6.4 KIROL INSTALAKUNTZAK ETA EKIPAMENDUAK INDARTU ESKAINTZA ZABALTZEKO ETA EGOKITZEKO

#### Jarduera

- Usabal: desgaitasuna duten pertsonentzako jasogailua (igerilekua-aldagela). Aparkalekuan irisgarritasuna hobetzeko jarduketa. Tornu berria eta bizikletak uzteko euskarrien instalakuntza, kiroldegiko solarium gunean (udaberria).

265 €

%100

## Kultura

2. Tolosa, herri hezitzailea eta kultur anitza ildo estrategikoa

2.2 Tolosa, kultur anitza

### 2.2.1 TOLOSAKO MEMORIA ETA ONDARE HISTORIKO-ARTISTIKOA BERRESKURATU, KONTSERBATU ETA ZABALDU

#### Jarduera

- Bi grabatu eta 1968ko inauterietako kartel bat eskuratu. Francisco Elosegui argazkilari tolosarraren funtsa artxibora ekarri eta erakusketa egin
- Tolosa 1945-1979, Frankismoaren diktadura eta oroimen historia” lanaren bigarren atala.
- Errolda-liburu zaharrak digitalizatzen

%50

### 2.2.2 TOLOSAKO AISIALDI-SORTZAILEA SUSTATU ETA ELKARLANA INDARTU

#### Jarduera

- Diru-laguntzetan, herriko eragileen lana sustatzeko.
- Musika eta arteetako formakuntza eskaintza mantendu eta gazteentzako idazle tailerra sortu

32.000 €

%50

### 2.2.3 KULTUR ESKAINTZA ZABALA, KALITATEZKOA, OSAGARRIA ETA GERTUKOA ESKAINI

#### Jarduera

- Zuzeneko ballet eta operen proiektzioa. Kultur-txartel eta abonauk areagotu

%50

### 2.2.4 TOLOSAKO KULTUR-GUNEEN EDOTA AZPIEGITUREN INGURUKO AZ-TERKETA ETA HAUSNARKETA INTEGRALA BURUTU, ERABILPEN ETA ESKAINTZA EGOKI BATERAKO EGOKITZAPENAK EGINEZ

#### Jarduera

- Ikerketaren kontratazioa egin da.

24.490,40 €

%25



## Hirigintza

3. Ingurunearen babesa eta udalerraren nortasuna mantenduko duen herri garapen iraunkor eredugarria ildo estrategikoa

3.1 Tolosako garapenaren oinarritzko programa birgaitu

3.1.1 TOLOSAKO AUZO BATZUEN BIRGAITZEA ETA BERRONERATZEA SUSTATU, AUZOZ AUZOKO PLANAK DISEINATUZ ETA ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA BARNERATUZ

### Jarduera

- Bidebietako berrurbanizazioa.

857.672,87 €

%100

3.1.2 ALDE ZAHARREKO BIRGAITZEA ETA BIZIBERRITZEA SUSTATU, BIZILAGUNEN BIZI BALDINTZAK HOBETU ETA JENDE GAZTEA ERAKARRI AHAL IZATEKO

### Jarduera

- Alde Zaharraren birgaitzeko desafioari buruzko txostena idazteko kontratua egin da.

21.538 €

%25

### 3.3 Oria ibaiari begira dagoen Tolosa programa.

#### 3.3.1 ORIA IBAIAK ESKAINTZEN DIZKIGUN AUKERAK BALIOESTEKO PROIEKTUAK GARATU, BERTAKO BIODIBERTSITATEA ZAINDUZ

##### Jarduera

- Tolosako hiri-lurraren barruan, Oria ibaiaren ertzen gaineko akzio plana idaztea.

27.225 €

%25

### 3.4 Espazio publiko irekiak eta udal ekipamenduak herritarren harremanetarako gune bilakatzea, programa.

#### 3.4.2 UDAL EKIPAMENDU ETA GUNE DESBERDINEN INGURUKO AZTERKETA ETA HAUSNARKETA INTEGRALA BURUTU, ERABILPEN EGOKI BATERAKO EGOKITZAPENAK EGINEZ

##### Jarduera

- Tolosako Udalaren ekipamendu soziokulturalen beharrei buruzko ikerketa lanak.

24.490,40 €

%25

## Azokak, obrak eta zerbitzuak

3. *Ingurunearen babesa eta udalerraren nortasuna mantenduko duen herri-garapen iraunkor eredugarria* ildo estrategia.

3.2 *Landa eremu bizia* programa.

3.2.1 TOLOSAKO LANDA AUZOEN BIZI KALITATEA HOBETZEKO EKINTZAK BURUTU, AUZO EROSOAK ETA BIZIAK IZAN DAITEZEN

### Jarduera

- Auzoetan 2017ko aurrekontuaren kargu egin behar diren jardunen proiektuak kontratatzea.



%25

## Ingurumena

3. *Ingurunearen babesa eta udalerraren nortasuna mantenduko duen herri garapen iraunkor eredugarria* ildo estrategia.

3.3 *Oria ibaiari begira dagoen Tolosa* programa.

### 3.3.2 SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK EGIN IBAI ETA ERREKEN GARRANTZI EKOLOGIKOA BALIOAN JARTZEKO

#### Jarduera

- Hegaztien Gida egin eta erakusketa Zerkausian.
- Izokin-kumeak askatzea, GFA-rekin elkarlanean.

6.000 €

%75

### 3.3.3 ERREKEN IBILGUAK ETA ERTZAK ZAINTEKO PLANIFIKAZIOA EGIN ETA GARATU HERRITARREKIN ETA BESTE ERAKUNDEEKIN ELKARLANEAN

#### Jarduera

- Martxoan erreken garbiketa ikastetxeekin, herriko elkarteekin eta Belarmendirekin.
- Ur agentziak eta Tolosaldea Garatzen landare inbaditzaileak kentzen ibili dira, Aranzadirekin elkarlanean. Ur agentziak Olarraingo eremuan ibaiaren bazter bat berreskuratzeko asmoa du.

3.000 €

%75

### 3.5 Kontsumo arduratsua eta hondakinen kudeaketa eredugarria, programa

#### 3.5.1 HERRITARREI ZUZENDUTAKO KONTSUMO ARDURATSU ETA OSASUNTSUAREN INGURUKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK EGIN

##### Jarduera

- Emaus-ek gidatutako 'Trasteak berrerabiliz, oroitzen berriak eraiki' hondakinen birziklapenaren eta berrerabilpenaren inguruko erakusketa ibiltaria Alondegian.
- Urteroko kanpaina TIZen eskutik Gabonak eta kontsumoa eta Gabonetako apaingarri jasagarriak ekimena.

%25

### 3.6 Biodibertsitatea bizi-kalitatearen oinarri, programa.

#### 3.6.1 TOLOSAK DUEN LANDA EREMU ETA EKOSISTEMA ABERATS ETA BALIOTSUAK ZAINDU ETA ABERASTU LURREN KUDEAKETA EGOKI BAT EGINEZ ETA ZAINZAKO HITZARMENAK INDARTUZ

##### Jarduera

- Aranzadi elkartearekin elkarlan bat abiatu da, Elozegi parkean hegaztientzako behatoki bat ezartzeko asmoarekin.
- Uzturreko eremuan berreskuratze lanak aurrera segitzen dute. Auzolandegiak egin dira bainuen eremua berreskuratzeke, eta herritar talde batek auzolaneari dihardu Miserikordia Zaharreko eremua txukunduz.

1.000 €

6.000 €

%38

3.7. *Klima aldaketari aurre egin eta egokitzen jakingo duen herria* programa.

### 3.7.2 ENERGIA-KONTSUMO ARDURATSU ETA ERAGINKORRA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SUSTATU BIZITEGIETAN ETA HIRUGARREN SEKTOREAN

#### Jarduera

- 2017an, Tolosaldeko energia-mahairen bitartez kanpaina desberdinak egin dira.
- Abenduan Energia Azoka.

1.600 €

%25

#### Udaltzaingoa

3.8 Mugikortasun jasagarria eta segurua sustatzen duen herria, programa

### 3.8.1 OINEZKOEI ETA BIZIKLETEI LEHENTASUNA EMATEKO PLANGINTZAK ETA PROIEKTUAK GARATU

#### Jarduera

- Mugikortasun planaren pleguak egin dira eta mugikortasun plan berria aurten esleituko da.
- Bizikleten aparkalekuen plangintza bat egiten ari da, 2018an aparkaleku gehiago jartzeko asmoz.

41.000 €

%25

### 3.8.2 GARRAIO PUBLIKOA BULTZATU ETA MOTORIZATUTAKO GARRAIOAN ERABILERA IRAUNKORRA SUSTATU

#### Jarduera

- Autobusaren erabilera bultzatzeko (Lurraldebus) kanpainak egin dira, ordutegiak publikatu eta abar.

%100

### 3.8.3 MUGIKORTASUN JASANGARRIA ETA SEGURU BAT LORTZEKO HEZKUNTZA KANPAINAK EGIN

#### Jarduera

- Bide - Hezkuntza kanpaineekin jarraitu da. Aurten 6. mailako ikasleak udaltzainen laguntzaz bizikletaz ikastetxera nola joan behar den lantzen ibili dira.
- Mugikortasun astean Bizibira egin da, Ibarako eta Tolosako ikastetxeak lotuz eta oinez busa ekimena saritu da.

800 €

%100

### 3.9.1 SOINU KUTSADURA GUTXITZEKO PLANGINTZA ETA JARDUERAK EGIN

#### Jarduera

- Aurten Tolosako Soinu mapa egin da. Datozen urteetan lan honetan oinarritutako ekintzak garatu beharko dira.
- 2017an Tolosako Bisorea garatu da. Bertan Ingurumen alorreko informazioa eskura daiteke, uren kalitatea, airearen kalitatea eta beste adierazle batzuei buruz.

18.000 €



14.000 €



## Merkataritza, feriak eta turismoa

4. Tolosako garapen ekonomikoa sustatu hiri-ekonomia, industria eta lehen sektorea oinarritzat hartuz ildo estrategikoa

4.1 Tolosako merkataritza sustatu programa

4.1.1 TOLOSAKO HIRUGARREN SEKTOREA ETA TOKIKO BEZEROEN FIDELIZAZIOA LORTU: LOTURA ESTUAGOAK FINKATU ETA HARREMAN BERRIAK SORTU

### Jarduera

- Fidelizazio sistemen txosten bat egin, Tolosa&Co-rekin hitzarmena sinatu, Ostalaritza azterlanaren barnean datu basea osatu.

30.000 €

% 25

4.2 Turismoak herriaren garapen ekonomikorako eskaintzen dituen aukerak aprobetxatu programa .

4.2.1 KANPOKO BEZEROAK (TURISTAK) TOLOSARA ERAKARRI

### Jarduera

- Tolosaren SPOTa ekoizteko kontratua esleitu. Tolosako web-a ekoizteko kontratua esleitu. Tolosaldea Garatzenen bitartez Tolosako eskaintza plazaratu Donostian Bilerak Turismo arloko erakunde eta *influencer*-ekin.





**19.000 €**



**%50**

### 4.3 Tolosako azpiegitura eta baliabideak, programa

#### 4.3.1 TOLOSA ERAKARGARRI EGIN EROSLE ETA TURISTENTZAT

##### Jarduera

- Azoka berrantolatzeko ikerketa, karpak erosi, Tolosa&Co-rekin larunbatak dinamizatu, Hitzarmena Tolomendi, Sagardo festa, EHU udako ikastaroa azoken inguruan eta azoka bereziak antolatu.

113.779 €

%75

#### 4.3.2 KONTSUMITZAILEAK TOLOSARA ETORTZEA ERRAZTU HARRERA ELEMENTU ETA HARRERA EKIPAMENDUAK LANDUZ

##### Jarduera

- Hotelaren esleipena, Aparkaleku enpresarekin hitzarmena, Udal eraikinen ikerketa, aterpetxea bertan barneratu, Pisu Turistikoen arloan EUDELen bitartez protokoloa landu.

% 50

#### 4.3.3 HIRI ATSEGINA EGIN BERTAKO ZEIN KANPOKO EROSLEENTZAT

##### Jarduera

- Gune Biziak proiektua martxan jarri, Gipuzkoako Federazioarekin hitzarmena "GIScom", Seinaleztapen azterketa Nafarroa etorbideko obrak direla eta Gudari Kalea apaintzeko eskaera.

36.500 €

%50

#### 4.4 Enpresen lehiakortasuna sustatu programa

##### 4.4.1 MERKATARITZA, EKOIZLE-BASERRITAR ETA ZERBITZU ENPRESEN LEHIAKORTASUNA INDARTU

###### Jarduera

- Berriz Tolosa eta Singular Dendak programak martxan jarri. Hitzarmenak sinatu Tolosa&Co eta Tolomendi elkartearekin.

51.000 €

%75

#### 4.5 Erlazio-era berriak programa

##### 4.5.1 KONTSUMITZAILEEN IRITZIA BARNERATU SUSPERTZEN DIREN PROIEKTUETAN

###### Jarduera

- Hiri ekonomiaren mahaiaren 5 bilera eta *Tolosa zuria loretan* ekimena egin.

%50

##### 4.5.2 LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUA SUSTATU UDALAK HIRI-EKONOMIAREN DINAMIZAZIO LIDERGOA HARTUZ ETA SEKTOREEN ARTEKO TOPAGUNEAK BULTZATUZ

###### Jarduera

- Bilera Eusko Jaurlaritzarekin BID Tolosa aurkezteko.

## Garapen ekonomikoa

4. Tolosako garapen ekonomikoa sustatu hiri ekonomia, industria eta lehen sektorea oinarritzat hartuz ildo estrategikoa.

4.6 Tolosa, industriarentzat erakargarri programa.

### 4.6.1 UDALERRIKO ENPRESA JARDUERA EZAGUTU, ERRAZTU ETA BALIOAN JARTZEA

#### Jarduera

- Udal ordezkari politiko talde bat hainbat enpresetara joan da eta jaso dituzte enpresek adierazitakoak
- Apattako industrialdearen bigarren faseari edo egokitzapenari ekin zaio.
- Enpresen egunaren antolaketari ekin saio.

**% 60**

**% 30**

**% 20**

### 4.6.2 ENPRESA PROIEKTU BERRIEN ETA IDEIA BERRIEN SORMENA SUSTATU

#### Jarduera

- Coworking programa martxan jarri da: ordenantza, informazio publikoa, Oriaburu txaleteko obrak .



**%80**

- Oriaburu Coworking zerbitzua kudeatzeko, Udalaren eta Tolosaldea Garatzenen arteko lankidetzaz hitzarmena sinatu da.



**%100**

#### 4.6.3 ENPRESEN ARTEKO SINERGIAK JORRATU ETA LANKIDETZA SUSTATZEA, UDALAK ZUBIGINTZA LANAK BURUTUZ

##### Jarduera

- SPRI eta udal arteko hitzarmena sinatu da Usabalgo industriagunea aztertzeko.

**%40**

#### 4.7 Enplegua, funtsezko aldagaia Tolosako garapen ekonomikoan, programa

##### 4.7.1 TOLOSALDEA GARATZENEN ETA UDALEKO DEPARTAMENTU EZBERDINEN ARTEKO KOORDINAZIOA INDARTZEA

##### Jarduera

- Bi erakundeetako teknikariek elkarrekin bilerak egin dituzte eta bestalde, Tolosaldea Garatzeneko teknikariek bere urteko lana azaldu dute Tolosako Udaletxean.

**%60**

##### 4.7.2 ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN BIDETIK ETA FORMAZIO ESPEZIALIZATUAREN BIDETIK ENPRESA BEHARREI ERANTZUTEKO, LANBIDE HEZIKETA ESKOLEKIN LANKIDETZA INDARTZEA

## Jarduera

- 2017ko martxoaren 31tik apirilaren 1era egin zen enplegu azoka.

**3.321,45 €**

**%100**

- Tolosako Udalaren eta Tolosaldea institutuaren arteko hitzarmenaren zirriborroa egin da.

**%60**

- Tolosako Udala eta LHko sailburuordetza 2018ko apirila aldera egingo den topaketa gorpuzten hasi dira.

**%20**